



1/2025 LEHENDAKARI EBAZPENA

Leitza, 2025eko otsailaren 17an

GAIA: 2025. URTEKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

MAIDER AMANTEGI URDALLETA, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakariak, kontuan hartuta, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua, bere 21.1 h) artikuluan eta 1996ko abuztuaren 21ean NAOko 101. Aldizkaria-n argitaratutako Mankomunitatearen Estatutuen 19 artikuluan araututakoaren arabera ditudan eskumenak, honen bitartez,

2025 URTEKO LEITZA, ARESO, GOIZUETA ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEN DA, honako baldintzapean:

LEHENENGOA.- Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Lan publikoaren eskaintza onestea 2025. urterako, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31//2022 Legeak birjarpen-tasaren inguruan araututakoa kontuan hartuta, bertan honako lanpostu hau sartuta:

1.- Lan legepeko langilea (PO-an 5.Zkia).

- Lanpostuen kopurua: 1.
- Lanpostua: Familia langilea.
- Maila: D.
- Jardunaldia: %100
- Sarbidea: oposizio-lehiaketa
- Lanpostu-hornikuntza aurreikuspena: 2025
- Hornikuntza baldintza: Euskara

BIGARRENA.- Lan eskaintza publiko hau eta 2022ko maiatzaren 24ko 100.aldizkarian argitaratutako lan eskaintza publikoko 7.lanpostuaren hornikuntza prozedura berdinean bateratzea, administrazioaren eraginkortasun-arrazoiak direla eta.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau mankomunitatearen web orrialdean, iragarki taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman dadin agintzea, bere ezagupen orokorrerako eta interesdunek bidezkotzat hartzen dituzten errekurtsioak jarri ahal ditzaten.

LAUGARRENA.- Lan eskaintza publiko honekin kaltetu suertatuko diren aldi baterako Mankomunitateko langileei Ebazpen hau jakinaraztea.

Leitza, 2025eko otsailaren 17an.

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da: 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua. 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.

